



**EBAZPENA, 2024ko otsailaren 9koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, osasun arrazoiak direla-eta 2024-2025 ikasturterako zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduen heren bateko murrizketak baimentzea arautzen duena.**

*Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen xedea da beharrezko bermeak eta erantzukizunak finkatzea, lan-baldintzetatik eratorritako arriskuen aurka, langileen osasuna maila egokian babes dadin. Gainera, xede horrek bat etorri behar du lan-arriskuei aurre egiteko politika koherente, koordinatu eta eragingarriekin.*

Berme horien artean, zehazki, 25. artikulua langile jakin batzuen babesaren bermea ezartzen du, hain zuzen ere, ezaugarri pertsonalak edo egoera biologiko ezagunak direla-eta lanak eratorritako arriskuen aurrean bereziki sentiberak diren langileen babesaren bermea, desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezko egoera aitortu zaien langileena barne.

Horri dagokionez, Hezkuntza Sailak langileen osasuna babestera bideratutako hainbat jardun egin ditu Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan, eta jardun horietako bat deialdi hau da.

Deialdi hau gauzatzearen ondorioz sor daitezkeen administrazio-egoerei dagokienez, egokia da zerbitzu-eginkizunak lanpostuak betetzeko ezohiko modu gisa aipatzea, *2022ko abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 106. artikuluan*, eta *Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 12. artikuluan* araututakoaren arabera.

Bestalde, lan-baldintzak arautzen dituen akordio horren 61. artikuluko bosgarren eta seigarren ataletan bilduta dagoenez, irakastorduen herena murriztu dezakete, gehienez ere bi urtez, osasun-arazo larriak dituztela-eta ohiko irakasle-lanetarako zailtasunak dituzten irakasleek.

Deialdi honen lehentasunezko helburuetako bat da aldi baterako erantzuna ematea osasun-arazo bat iragankorra izan daitekeela uste denean eta langilea gehienez ere hiru urteko epean sendatzeko aukera dagoenean.

Era berean, deialdi honen helburua da salbuespenezko egoera jakin batzuei irtenbide bat ematea, hala nola senitartekoen gaixotasun larriaren ondoriozko zerbitzu-eginkizunak.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza Sailak, ohiz kanpoko deialdia egiten du urtero, zerbitzu-eginkizunak/lanaldi-murrizketak barnean hartzen dituen prozedura martxan jartzeko, eginkizun eta murrizketa horiek emateko baldintzak zehaztuta, ziurtatzeko deialdia zertarako egin den, horretarako bideratzen dela.

Horren arabera, eta *Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak 10. artikuluan* ezarritakoa aintzat hartuta,



## **EBAZTEN DUT:**

### **LEHENENGOA.- PARTE HARTZEKO MODALITATEAK.**

Honako zerbitzu-eginkizun eta klase-orduen murrizketa hauen prozedura deitzea:

- 1.- Osasun-arrazoi larriengatik zerbitzu-eginkizunetan lanpostu bat baimentzea.
- 2.- Osasun-arrazoi larriengatik klase-orduen 1/3ko murrizketa aldi baterako baimentzea, ohiko irakaskuntza-lanean aritzea zailtzen duten egoeretan.
- 3.- Osasun-arrazoi larriengatik edo, salbuespen gisa, behar bezala egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik zuzeneko eskolak ez emateko zerbitzu-eginkizunak baimentzea.
- 4.- Senideen gaixotasun larriarengatik zerbitzu-eginkizunak baimentzea.

### **BIGARRENA.- PARTE-HARTZAILEAK.**

Honako hauek har dezakete parte deialdi honetan:

- 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioek lehenengo artikulua ezarritako modalitateetan parte hartu ahal izango dute.
- 2.- Praktikaldian dauden funtzionarioek lehen artikulua ezarritako modalitateetan parte hartu ahal izango dute, betiere 2024-2025 ikasturtean karrerako funtzionarioak badira.
- 3.- Ikasturte osoko lanpostua betetzen duten bitarteko funtzionarioek lehen artikulua 2. idatz-zatian deskribatutako modalitateetan parte hartu ahal izango dute, betiere 2024-2025 ikasturtean ikasturte osoko lanpostua lortzen badute.
- 4.- Salbuespenez, lan-legepeko irakasle finkoek edo mugagabeek, eta erlijio kategoriako lan-legepeko mugagabeek deialdi honek irekitzen duen epean bere eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte.

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu beste Administrazio Publikoen mendeko funtzionarioek, bere eremu subjektibotik kanpo geratzen baitira.

### **HIRUGARRENA.- BALDINTZAK.**

- 1.- Zerbitzu aktiboko egoeran egotea, *Euskal herri-administrazioetako funtzionarioen administrazio-egoerei buruzko araudia onartzen duen azaroaren 11ko 339/2001 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera*; edo lanpostua gordetzea dakarren egoera administratiboren batean egotea, eginkizun-gabetzea izan ezik.
- 2.- Behin betiko edo behin-behineko destinoa Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatetik kanpoko ikastetxe publikoetan izatea, bigarren artikulua 3. puntuan parte-hartzaileei buruz ezarritakoa alde batera utzi gabe.
- 3.- Deialdi honen bidez zerbitzu-eginkizunen bat lortzen duten langileek 2024-2025 ikasturterako beste deialdietan parte hartu ahal izango dute. Deialdi batean baino gehiagotan parte hartzen badu, horietako bat aukeratu beharko du 2024ko maiatzaren 31a baino lehen, eta hala egiten ez badu, deialdi hau gailenduko da.

## **LAUGARRENA.- MODALITATE BAKOITZEAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.**

Deialdi honetan araututako modalitate guztietan, zerbitzu-eginkizunetarako baimena justifikatzen duen interesdunak ekarritako txosten medikoak aldi baterako osasun-arazo bat dagoela jaso beharko du. Aldi baterako arazotzat joko da zerbitzu medikoek gehienez ere 3 urteko epean erreperatzea aurreikusten duten osasun-arazoa. Zirkunstantzia hori parte hartzeko modalitatearen arabera dagokion medikuak egindako balorazio-txostenean egiaztatu beharko da.

Salbuespen gisa, eta osasun-arazoak hobera egin duela egiaztatzen duen aldeko txosten medikoa badago, zerbitzu-eginkizuna baimendu ahal izango da gehienez ere 5 urte bete arte.

Osasun-arazo kronikoek, aitortutako ezintasunek edo mendetasunek eragindako eskaerei ez zaie inoiz erantzungo, ez eta osasun-arazo itzulezinek edo hobekuntzarik aurreikusten ez zaien eragindakoei ere. Kasu horietan, lanpostua egokitze eskaera egin beharko du interesdunak, ikasturteko edozein momentutan, Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuan.

### ***1.- Osasun-arrazoi larriengatik zerbitzu-eginkizunetan lanpostu bat baimentzea.***

Gaixotasun larri propioak hala eskatzen edo justifikatzen duenean, kidego bereko irakasle-lanpostu bat esleitzeko baimena emango da. Lanpostu horren ezaugarriak eta baldintzak eskatzailearen beharretara egokituko dira, zerbitzu-eginkizunen bidez.

Honako aukera hauek aztertu ahalko dira:

- 1.1. Eskatzaileak bere behin betiko destinoko ikastetxean eskatzen du zerbitzu-eginkizuna.
- 1.2. Eskatzaileak behin betiko destinoko ikastetxea ez den beste ikastetxe batean eskatzen du zerbitzu-eginkizuna.
- 1.3. Behin betiko destinorik ez duen eskatzailea.

Oro har, eskatzaileari azken lekualdatze-lehiaketan parte hartu izana eskatuko zaio, lehiaketaren deialdian ezarritakoaren arabera egiteko aukera izan badu, bat-batean sortutako egoeretan izan ezik. Deialdi honekin lortu nahi den helburua lortzeko aukera ematen duten lanpostuak eskatu beharko lirateke lekualdatze-lehiaketan.

### ***2.- Osasun-arrazoi larriengatik klase-orduen 1/3ko murrizketa aldi baterako baimentzea, ohiko irakaskuntza-lanean aritzea zailtzen duten egoeretan.***

Modalitate honetan onartzen den murrizketa, urtero eta gehienez 2 ikasturtetarako onartu ahal izango da, beti ere dagozkion deialdietan parte hartuz gero. Murrizketa hau onartzeko arrazoiak mantentzen badira, Balorazio-batzordeak (zazpigarren artikulua) hirugarren ikasturte baterako onartzeko aukera baloratuko du.

Aldi baterako murrizketa-egoera horretan 2 ikasturte edo gehiago daramatzen kontuan hartzeko, azken 10 urteak hartuko dira kontuan, eta azken urtea azken 3 ikasturteen barruan izan dela.

Onuradunaren adina dela-eta 2024-2025 ikasturtean zehar erretiroa gauzatzen bada, aldi baterako baimen honek eragina izango du erretiroa hartzeko aukera izan dezakeen unera arte.

Ezingo dute modalitate honetan parte hartu euren adina dela-eta 2023-2024 ikasturtean zehar erretiroa hartu ahal izan duten pertsonak.

Atal honetan arautzen den osasun-arrazoi larriengatik klase-orduen 1/3ko murrizketa aldi baterako baimentzea, bateraezina izango da adina dela-eta klase-orduak murrizteko deialdian parte-hartzearekin.

Irakastorduen 1/3 murrizteko baimena duten langileei irakaskuntzaz kanpoko eginkizunak esleituko zaizkie, kasu bakoitzean esleitutako lanaldia osatu arte. Honako eginkizun hauek esleituko dira: guardiak, ordezkapenik sortzen ez duten irakasleen ordezkapenak, zeregin osagarrien laguntza, proiektu-orduak, jantokiko arduraduna, etab. Inola ere ez du ekarriko 1/3 ordu murriztea inolako lanik egin gabe.

### ***3.- Osasun-arrazoi larriengatik edo, salbuespen gisa, behar bezala egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik zuzeneko eskolak ez emateko zerbitzu-eginkizunak baimentzea.***

Modalitate honetan zuzeneko eskolak ez emateko eginkizunetan aritzeko esleipena, beti ezohikoa izango dena, dagozkion urteroko deialdietan parte hartzearen bidez onartuko da, eta gehienez bi ikasturterako.

Baimen honek bere onuradunentzat eragina izan dezake erretiroa hartzeko aukera izan dezaketen unera arte, 2024-2025 ikasturtean zehar euren adina dela-eta erretiroa gauzatzen denean.

- Salbuespenez, 2 ikasturte baino luzeagoko iraupenarekin egoera honetan mantentzea onartu ahal izango zaie, beti ere Hezkuntza Sailaren Zerbitzu Medikoaren edo Prebentzio-Zerbitzuaren txostenek horrela jasotzen badute, 2024-2025 ikasturtean adina dela-eta erretiroa hartuko duten parte-hartzaileei, erretiroa hartzeko aukera izan dezaketen unera arte.

Hezkuntzako Ikuskaritzak langileak egindako atazen txosten deskribatzailea egingo du.

Ezingo dute modalitate honetan parte hartu euren adina dela-eta 2023-2024 ikasturtean zehar erretiroa hartzeko aukera izango zuketuen pertsonak.

Zuzeneko irakaskuntza ez emateko eginkizunetara bideratutako zerbitzu-eginkizuna baimentzen zaien langileei ikastetxearen funtzionamenduko irakaskuntzakoak ez diren funtzioak esleituko zaizkie. Honako eginkizun hauek esleituko dira: guardiak, ordezkapenik sortzen ez duten irakasleen ordezkapenak, zeregin osagarrien laguntza, proiektu-orduak, jantokiko arduraduna, etab. Inola ere ez da liberazio osoa izango ikastetxean lanik egin gabe.

### ***4.- Senideen gaixotasun larria dela-eta zerbitzu-eginkizunak baimentzea.***

Baimen-modalitate honen barruan, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango dira, lehen mailako goranzko edo beheranzko odolkidetasunezko senitartekoren batek, edo ezkontideak, edo behar bezala egiaztatutako bikotekide egonkorrek gaixotasun larria badu, betiere gaixo hori eskatzailearekin bizi bada eta eskatzailearen laguntza behar badu.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, legez adoptatuak edo legez hartutakoak izan diren seme-alabak beheranzko lehen mailako senidetzat hartuko dira.

Halaber, pertsona baten legezko tutoretza duten irakasleak, pertsona horren aita eta ama direla iritziko da zerbitzu eredu hau eskatzerakoan, beti ere elkarbizitza badago.

Zerbitzu-eginkizun honen helburua lanpostua eskatzailearen gaur egungo bizilekura hurbiltzea da.

Salbuespen gisa, modalitate honetako zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango dira, baldin eta ezkontza-ahaidetasuneko lehen mailako goranzko edo beheranzko lotura duen senideren batek gaixotasun larria badauka, eskatzailearekin bizi bada eta eskatzailearen laguntza behar badu. Betiere, errolda ziurtagiriaren bitartez behar bezala egiaztatzen bada bi pertsonak etxebizitza berean bizi izan direla azken urtean, etenik gabe eta modu jarraituan. Adingabeen kasuan, haien gurasoak edo legezko arduradunak direla egiaztatu beharko da soilik.

## **BOSGARRENA.- ESKAERA.**

1.- Eskabideak HEZIGUNEA atariaren bidez aurkeztu beharko dira (<https://hezigunea.euskadi.eus>), "Osasun-arrazoia direla-eta zerbitzu-eginkizunak" bannerretik, eta beharrezkoa izango da alde aurretik eskatzailearen identifikazioa (NAN/AIZ + pasahitza, edo XLNets erabiltzailea, halakorik balego).

2.- Eskabideak aurkezteko epea 2024ko otsailaren 23ra arte izango da, egun hori barne. Epea 2024ko otsailaren 12tik aurrera hasiko da.

Salbuespen gisa, epez kanpo erantzungo zaie aurreko paragrafoan ezarritako epea amaitu ondoren sortu diren bat-bateko egoerek eragindako epez kanpoko eskaerei. Eskaera epearen barruan aurkeztu ezin izana justifikatzen duen dokumentazio medikoa aurkeztu beharko da.

3.- Deialdi honetan onartutako zerbitzu-eginkizunari uko egin ahal izango zaio, 2024ko maiatzaren 31ra arte soilik (egun hori barne).

Emandako zerbitzu-eginkizunari uko egitea organo eskudunak onartu beharko du.

4.- Deialdi honetan aurreikusten diren modalitateen artetik soilik bat eskatu ahalko da, euren artean bateraezinak direlako.

Modalitate bat baino gehiago eskatuz gero, eskabidea hamar laneguneko epean zuzentzeko eskatuko da. Zuzenketa egiten ez bada, parte-hartzailea prozesutik kanpo geratuko da.

## **SEIGARRENA.- BALORAZIO PROZESUA.**

### **Modalitate espezifiko bakoitzaren prozesua**

#### **1.- Norbere osasun arazoak direla eta (1., 2. eta 3. modalitateak)**

Prebentzio-Zerbitzuak dagozkion balorazio-txostenak emango ditu, balorazio horietara irizteko arrazoiak azalduz.



Salbuespenez, horretarako inguruabarren ondorioz dagokion Prebentzio-Zerbitzuak ezin badu txosten hori egin, dagokion Lurralde-ordezkaritzako Zerbitzu Medikoak egin ahal izango du.

Norbere osasun-arrazoia direla kausa egindako eskaerei dagokienez, dagokion Lurralde-Ordezkaritzako Zerbitzu Medikoak aldi baterako ezintasunaren segimendua egin badu, Zerbitzu-Mediko horrek proposamena biltzen duen txostena helaraziko dio, hala badagokio, Prebentzio-Zerbitzuari.

## **2.- Senideen gaixotasuna dela eta (4. modalitatea)**

Dagokion Lurralde-Ordezkaritzako Zerbitzu Medikoak modalitate honi dagozkion balorazio-txostenak emango ditu, senideen gaixotasunari dagokionez.

### **Prozesu bateratua**

- Modalitate espezifiko bakoitzari dagokion prozesua egin eta gero, Lurralde-Ordezkaritzek dagokion Balorazio-batzordeari eskabide bakoitzari buruzko informazioa bidaliko diote.
- Dokumentazioa bidali aurretik Lurralde-Ordezkaritzek eskabideren baten dokumentazio falta antzemango balute, eskatzaileari eskatu beharko diote.

## **ZAZPIGARRENA.- BALORAZIO-BATZORDEA**

1.- Lurralde-Ordezkaritza bakoitzean Balorazio-batzorde bat sortuko da, eta bere kideak hauek izango dira:

- Lehendakaria:
  - Langileak Kudeatzearen arduraduna, edo hark eskuordetutako pertsona.
- Batzordekideak:
  - Sailaren Zerbitzu Medikoaren arduraduna; egoki irizten badio, lurraldeetako arduradun medikoen laguntza izan dezake.
  - Dagokion Lurralde-ordezkaritzako pertsonaleko burua.
- Idazkaria:
  - Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari bat.

Bestalde, Balorazio-batzordean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza publikoaren esparruan behar besteko ordezkaritza duen sindikatu bakoitzeko ordezkarri bana egongo da, hitzarekin baina botorik gabe.

2.- Deialdi honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten eta garaiz eta forman aurkeztu diren eskabideak dagokion Balorazio-batzordeak baloratuko ditu.

## **ZORTZIGARRENA.- ONARTUEN ETA BAZTERTUEN EBAZPENA.**

1.- Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdia behin-behinean ebatziko du dagokion Balorazio-batzordeak egindako ebazpen-proposamena oinarri hartuta.

2.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren behin-behineko ebazpena, Hezkuntza Sailaren webgunean eta Hezigunean argitaratuko da, jakinarazpenetarako.



3.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren behin-behineko ebazpenaren kontra, alegazioak egin ahal izango dira 10 eguneko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Alegazioak aurkezteko epea igarota, horiek baloratuko dira eta onartuen eta baztertuen behin-betiko ebazpena argitaratuko da.

4.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren behin-betiko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.- Osasun-arrazoiengatik lanpostu bat zerbitzu-eginkizunetan baimentzen den kasuetan, dagokion ebazpena eman ondoren, zuzenean esleituko da dagokion egoera edo destinoa, ikasturte-hasierako esleipena hasi aurretik, baldin eta baimenak ez badakar berekin interesdunak behin betiko destinoa duen ikastetxea ez den beste ikastetxe batera aldatzea.

Era berean, langileak lanpostu jakin batera atxikitzea proposatu ahal izango du Balorazio Batzordeak, egoera bereziren bat dela-eta hala komeni bada

Destinoko ikastetxez aldatzea dakarten gainerako kasuetan —langileak behin betiko destinoa duen ikastetxea ez den beste ikastetxe batera, edo behin betiko destinoa ez duen langileriari eragiten dionean—, langileek beste lanpostu bat lortzeko ikasturte hasierako esleipenean parte hartuko dute, dagokion txandan.

6.- Gerora sortutako arrazoiengatik garaiz kanpo egindako eskaeren kasuan, Langileak Kudeatzeko zuzendariak behin betiko ebatziko du eskabide bakoitza. Langileak Kudeatzeko zuzendariaren behin betiko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

## **BEDERATZIGARRENA.- ONDORIOAK.**

Deialdi honen babespean emandako baimen guztiek 2024-2025 ikasturtean izango dute indarra, eta interesdunak ezin izango die aldi horretan uko egin.

Lekualdatze-lehiaketaren emaitzak behin betiko ematen badu deialdi honen bidez lortu nahi ziren helburuak lortzea, interesduna lekualdatze-lehiaketa bidez lortutako lanpostuan sartuko da, eta zerbitzu-eginkizunaren eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

Zerbitzu-eginkizuna onartzen zaion langilea zerbitzu aktiboa ez den beste administrazio-egoera batean badago, zerbitzu-eginkizunaren esleipena egin ahal izateko, berehala itzuli beharko du lanera, eta une horretan esleituko zaio behin betiko zerbitzu-eginkizuna.

Behin betiko jabeek jatorrizko lanpostuari eutsiko diote beti, eta beste lanpostu bat betetzen hasten direnean, zerbitzu-eginkizunetan geratuko dira.

Deialdi honetan aurreikusitako partaidetza-modalitateak osasun-arrazoiengatik ematen badira, Prebentzio Zerbitzuak horien jarraipena egingo du.



## **HAMARGARRENA.- DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OINARRIZKOA.**

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Langileak kudeatzea.

Arduraduna: Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Irakasle eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, interesduna alderdi duen kontratu bat betearazteko.
- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

- Estatuko Administrazioako beste organo batzuk.
- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: [www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-capa2-eu.shtml](http://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-capa2-eu.shtml)

Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra ([www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa\\_dpd/eu\\_def/adjuntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ([www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](http://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)).

## **HAMAIKAGARRENA.- ARAUDIA.**

Ebazpen honek prozedurari eta kide anitzeko organoen funtzionamenduari dagokionez arautu ez duen orotan, aplikagarri izango dira *Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea* eta *Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea* eta *190/2004 DEKRETUA, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena.*

## **HAMABIGARRENA.- ERREKURTSOAK.**





*Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak*, 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko otsailaren 9an.

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA